

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**194/2020 Foru Agindua, ekainaren 17koa, zeinaren bidez baimentzen baita "Artziniega I" igorpen zentroa, ITELAZPI SAK kudeatua eta Artziniegako herriaren "Peñalba" onura publikoko 8 mendian kokatua, eta "Artziniega Valluerca" igorpen zentroko linea elektrikoa, "Fuentehoz y La Cuesta" onura publikoko 6 mendian kokatua, okupatzearen erregularizazioa**

Mendi Zerbitzuak jakinarazi duenez, urtarrilaren 10eko 2/2020 Foru Aginduaren bidez hasiera eman zitzaion Itelazpi SAK kudeatzen duen "Artziniega I" igorpen zentroaren okupazioa erregularizatzeko administrazio prozedurari, haren ustez Itelazpi SAK ez duelako aipatutako okupazioarako babes ematen dion titulurik. Horrez gain adierazi zuen erregularizazio hori administrazio emakida bidez egin behar dela.

Mendi Zerbitzuak administrazio prozeduraren instrukzioa sustatu du okupazioa baimentzeko baldintzak ezartzeko. Egindako izapideen artean daude entzunaldi izapidea eta espedientea interesdunei hamar egunez eskura jartzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua aplikatuz.

Izapide horren ondorioz, Itelazpi SAK baino ez zituen jarri alegazioak eta Mendi Zerbitzuak alegazio horiei erantzuna emateko txostena egin zuen 2020ko apirilaren 29an. Nabarmendu beharra dago Itelazpi SAren ustez kanonaren doakotasuna alde aurretik mendiaren erakunde titularrarekin zegoen akordioan jasotako alderdietako bat da, eta Mendi Zerbitzua, printzipioz, ados agertu zen. Hala ere, kanonaren doakotasunak funtsezko aldaketa zekarrenez lehen entzunaldi izapidean adierazitako ebazpen proposamenean, bigarren izapide bat egin zen, 2020ko maiatzaren 17an.

Bigarren entzunaldi izapidearen ondorioz, Artziniegako Udalak 2020ko maiatzaren 29ko sarrera datarekin eta Itelazpi SAK 2020ko ekainaren 8ko sarrera datarekin egindako alegazioak jaso ziren. Artziniegako Udalak 3.819,08 euroko kanona ezartzeko eskatu zuen, eta Itelazpi SAK, ordea, alegatu zuen okupazioaren doakotasunak erakunde titularrarekin egindako aurretiko akordioetan duela jatorria eta azaleraren mende dagoela, eta ez instalatutako elementuen mende; Artziniega-Valluercaseko hartuneko linea planoan zehaztea eskatu zuen, eta behin eta berriz egin izan diren gainerako eskaerak errepikatutzat eman zituen.

Osorik aztertu dira Artziniegako Udalak egindako alegazioa eta Itelazpi SAK lehen entzunaldi izapidean (2020ko martxoaren 11n) eta bigarrenean (2020ko ekainaren 8an) egindakoak. Azken horren alegazioen arabera, Udalaren eta Itelazpi SA sozietatearen arteko 2007ko akordioan ezarritako okupazioaren doakotasunari eutsi behar zitzaion. Horrenbestez, alderdien artean ez dago adostasunik ordaindu beharreko kanonari buruz. Horren ondorioz, Mendi Zerbitzuak kanona ezarriko du, antzeko beste komunikazio zentro batzuetan erabili duen metodologia estandarizatu bera aplikatuz.

Mendi Zerbitzua Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan xedatutakoaren mende dago. Arau hori, bestalde, Itelazpi SAK eta Artziniegako Udalak lankidetzat hitzarmena sinatu aurretik jarri zen indarrean.

"Artziniega Valluerca" igorpen zentroari dagokionez, Mendi Zerbitzuak 2020ko apirilaren 30ean jakinarazi zuen zentro hori ez dagoela onura publikoko mendian, baina bai hornitzen duen linea elektrikoaren zati bat, eta linea hori araupetzeko prozedura "Artziniega I" igorpen

zentrokora eranstea proposatu zuen. Aurreikuspen hori ebazpen proposamenaren txostenaren zirriborroan jaso zen, eta zirriborro hori bigarren entzunaldi izapidean erakutsi zen. Gai horri buruz ez da inolako alegaziorik egin.

Zuzenbideko oinarri hauexek hartu dira kontuan:

“Artziniega I” igorpen zentroa Artziniegako herriaren “Peñalba” onura publikoko 8 mendian dago kokatuta. “Artziniega Valluerca” igorpen zentroaren linea elektrikoa “Fuentehoz y La Cuesta” onura publikoko 6 mendiaren lurretan dago eraikita. Bi mendiak Artziniegako Udalarenak dira eta aipatutako mendiak Arabako onura publikoko mendien katalogoan sartuta daude Ministerioaren 1909ko maiatzaren 5eko Errege Aginduaren bidez katalogoa behin betiko onetsi zenetik.

Egiaztatuta gelditu da Itelazpi SA enpresak ez daukala titulu egokirik mendi horien erabilera pribatiborako.

Bere legezko jabearekin zerikusirik ez duen erakunde batek mendi katalogatuaren zati baten erabilera pribatibo hori egitea okupazio bat da, eta, beraz, Arabako Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan (aurrerantzean, MFA) 24. artikuluan xedatutakoa bete behar du. Artikulu horren arabera, mendi katalogatu baten zati bat okupatzeko, Foru Aldundiko mendien arloko sail eskudunaren administrazio emakida beharko da. Lege xedapen horrek berdin eragiten die MFA indarrean sartu aurreko okupazio guztiei, ikusita zer jasotzen duten Mendiei buruzko Legearen lehenengo xedapen iragankorrak, azaroaren 21eko 43/2003 Legeak eta Jabari Publikoko Mendiei eragiten dieten Zortasunak eta Bestelako Kargak Berrikusteari buruzko apirilaren 28ko 10/2006 Legeak.

MFAren 24.1. artikulua xedatutakoari dagokionez, telekomunikazio zentroaren okupazioaren ezaugarriak aztertu dira, eta bateragarritzat jotzen dira oraingo okupazioa eta erabilera eta mendiaren onura publikoko izaera, baldin eta proposamen honen xedapen zatian jasotako baldintzak betetzen badira.

Mendiaren jabe den erakundea, Artziniegako Udala, ez dago okupazioaren aurka.

Eskaera aztertu eta administrazio prozeduraren instrukzioa amaitu ondoren, frogatutzat hartzen da proiektua eta mendiaren onura publikoa bateragarriak direla, Mendien Foru Arauak (11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa) III. kapituluan, 24. eta 26. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

Kontuan hartu da Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatutakoa eta ikusi da Nekazaritza Saileko foru diputatuak duela espediente hau abiarazteko eta ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz. Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenen indarrez, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea honako hauen okupazioa erregularizatzeko espediente: Itelazpi SA sozietateak kudeatzen duen eta Artziniegako herriaren “Peñalba” onura publikoko 8 mendian dagoen telekomunikazio zentroaren okupazioa eta Artziniegako herriaren “Fuentehoz y La Cuesta” onura publikoko 6 mendian dagoen “Artziniega-Valluerca” komunikazio zentroa hornitzen duen lurpeko linea elektrikoaren zati baten okupazioa.

Bigarrena. Onespina ematea jabari publikoaren erabilera pribatiborako ematen den administrazio emakidari, baldintza hauekin:

1. Artziniega I zentro igorlea: kokapena, okupazio eremua, instalazio nagusiak eta linea elektrikoaren okupazioa.

- Kokapena: Artziniegako udalerriko 4 poligonoko katastroko 722 hiri lurzatia eta 660 landa lurzatiaren zati bat, Montenegro aurkintzan. Artziniegako herriaren "Peñalba" onura publikoko 8 mendian dago.

- Instalazio nagusiak: 19 metroko garaierako komunikazio dorrea, oinplanoan 16 m<sup>2</sup> eta 6,6 m<sup>2</sup> egiten duten bi etxola (guztira 22,6 m<sup>2</sup>), energia elektrikoaren hargunea eta perimetro itxitura.

- Okupazio eremu osoa 72,25 m<sup>2</sup>-koa da, I. eranskineko planoan zehazten denaren arabera.

2. Artziniega Valluerca zentro igorlearen linea elektrikoak: kokapena eta linea elektrikoaren okupazio eremua:

- Kokapena: Artziniegako udalerriko 4 poligonoko katastroko 180 hiri lurzatia, Pico Quintana aurkintzan. Artziniegako herriaren "Fuentehoz y La Cuesta" onura publikoko 6 mendian dago.

- Instalazio nagusiak: lurpeko linea elektrikoak.

- Okupazio eremu osoa 158 m<sup>2</sup>-koa da (158 m luze bider metro 1 zabal), II. eranskineko planoan zehazten denaren arabera.

3. Zentrora iristeko azpiegitura. Artziniegako Udalak bere titulartasuneko erabilera edo zerbitzu publikoko instalazioak kontserbatzeko eta konpontzeko eskumena duenez eta, bereziki, bere baso ondarea administratzeko, kontserbatzeko eta arautzeko, erakunde titularrari dago-kio telekomunikazio zentrora sartzeko bidea kontserbatzea, baso jabari publikoa osatzen duen ondasuna den aldetik.

Nolanahi ere, Itelazpi SAK Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako toki-erakundearen onura publikoko mendietan eta herri-jabariko mendietan ibilgailu motordunen zirkulazioa arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 9ko 10/2010 Foru Dekretuak (ALHAO, 2010eko martxoaren 22koa) ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Horrenbestez, Artziniegako Udalaren baimena beharko dute aipatutako legearen 8. artikuluan jasotako kasuek.

Ezin izango dira hara sartzeko beste bide batzuk erabili, lehenago Artziniegako Udalak baimena ematen ez badu.

4. Erantzukizuna. Itelazpi SA arduratuko da igorpen zentroa kudeatzearen eta ustiatzearen ondorioz eremu baimenduan zein okupazio azaleratik kanpo hondatuak izan daitezkeen eremuak leheneratzeaz.

Enpresa adjudikaziodunak du instalazioaren ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalteen gaineko erantzukizun zibila.

5. Okupazioaren epea 30 urtekoa izango da, betiere okupazioaren xede den erabilera bada nagusi. Gehienez 75 urterako berritu ahal izango da, hori baita toki araubideari buruzko legerian ezarritakoa.

6. Itelazpi SAK ordaindu beharreko kanona eta haren berrikuspena: Artziniegako Udalarik ordaindu beharreko kanona, guztira, 3.828,28 eurokoa da urtean. Horietatik, Artziniega komunikazio zentroari 3.820,38 euro dagozkio urtean, TRAGSATEC enpresak egindako txosten honen arabera: Txosten tekniko-ekonomikoa. Kanonaren kalkulua, Artziniega telekomunikazio-zentroak onura publikoko 8 zenbakiko mendia okupatzearen kontzeptuan. Izan ere, urtean 3.819,08 euro dira telekomunikazio zentroaren erabilera pribatiboagatik, eta 1,3 euro urtean Artziniega komunikazio zentroaren linea elektrikoak egiten duen baso jabariaren okupazioagatik. Artziniega-Valluerca zentroko linea elektrikoari 7,9 euro dagozkio urtean, hau da, 0,05 euro/m<sup>2</sup>-ko kanon unitarioa aplikatu zaio linearen okupazio azalerari (158 m<sup>2</sup>), aipatutako txosten tekniko ekonomikoan aplikatzen den metodologia berari jarraituz.

7. Kanona 5 urtean behin berrikusiko da aldi horretako KPlaren arabera eguneratuko diren aleko prezioak aplikatuta azaleraren baldintzei, dorrearen altuerari eta kanona eguneratzean instalatuta dauden elementuei, irizpide gisa hartuta aipatutako txosten tekniko-ekonomikoan adierazitakoak, eta berrikuspena egingo da okupazioa arautzen duen foru agindua aldatzearen bidez. Ordainketa hilabeteko epean egin beharko da, Itelazpik onura publikoko mendia okupatzeko emakida jakinarazten denetik aurrera.

Horretarako, okupaziorako emakidaren datatik bost urteko aldia bete aurreko 15 egunetan, enpresa emakidadunak txosten bat bidali beharko du instalatu diren elementuen datuak eguneratuta. Kanonaren bost urtean behingo berrikuspena egiteko balioko du.

Dorrearen altuera eta okupazio azalera aldatzearen ondoriozko eguneratzeak baimena ematen den unean egingo dira.

8. Landaredia garbitzeko lanak, bide ertzak mantentzekoak edo beste edozein esku hartze egin behar izanez gero onura publikoko landaredian, Mendi Zerbitzuko langileen ikuskaritzapean egin behar dira, hark kontrolatuko ditu-eta egin beharreko sastraka kentze, inausketa eta zuhaitz mozte lanak, langile horiek seinalatu beharrekoa seinalatu eta gero, eta aprobetxamendua, halakorik egonez gero, mendiaren erakunde titularraren onurarako izango da.

9. Okupazio epea beteta, edo baimena ematearen helburu den erabilera lehenago bukatuta, titular kontzesiodunak, gehienez ere urtebeteko epearen barruan, instalazioak kendu eta eragindako lurak lehengoratu beharko ditu.

Hirugarrena. Ebazpen hau mendi publiko katalogatua okupatzeko izapideari dagokio, eta ez du emakidaduna salbuesten indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen beste baimen eta lizentzia batzuk izapidetu beharretik.

Laugarrena. Foru Agindu hau jakinaraztea Artziniegako Udalari, Itelazpi SA sozietateari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegi ego-kian, bi hilabeteko epean. Horrek ez du eragozten Nekazaritza Saileko diputatuari aukerako berraztertze errekurtsua aurkezterik hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 17a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**